

Euskal AEko adinekoek zaintza pertsonalean denbora gehiago eta aisialdian denbora gutxiago ematera igaro dira azken 30 urteetan

65 urte eta gehiagoko biztanleek 10etik 7,16rekin puntuatu dute bizitzarekiko gogobetetasuna 2023an

Euskal AEn bizi diren adinekoek gora egin dute zainketa pertsonaletan ematen duten denbora, egunaren erdia baino apur bat gehiago 2023an (13 ordu eta 14 minutu). 1993an baino ia ordubate gehiago ematen dute (12 ordu eta 15 minutu), Eustatek asteartean, urriak 1, ospatzen den Adinekoen Nazioarteko Egunean emandako datuen arabera.

Bestalde, aisialdi pasiboari eskainitako denbora, hau da, prentsa edo liburuak irakurtzeari, musika entzuteari, museoak bisitatzeari eta abarri eskainitakoa, murriztu egin da azken 30 urteetan, 31 minututan, 1993an 4 ordu eta 16 minutu izatetik 2023an 3 ordu eta 45 minutu izatera igaro baita. Era berean, etxeko lanetan emandako denbora 25 minututan murriztu da (2 ordu eta 51 minutura), eta bizitza sozialean emandakoa ere 18 minututan murriztu da (43 minutura) aldi horretan.

Euskal AEko 60 urte eta gehiagoko pertsonen batez besteko gizarte-denbora (hh: mm), partaide bakoitzaren batez besteko denbora (hh: mm) eta partaidetza-tasa (%), jardueraren arabera. 1993-2023

	Batez besteko gizarte-denbora (1)		Partaideko batez besteko denbora (2)		Partaidetza tasa (3)	
	1993	2023	1993	2023	1993	2023
Norbere buruarekiko ardura	12:15	13:14	12:15	13:14	100,0	100,0
Lana eta prestakuntza	1:00	0:47	4:46	6:11	20,8	12,6
Etxeko lanak	3:16	2:51	4:04	3:01	80,8	94,5
Familiakoekiko ardura	0:07	0:17	1:36	1:45	7,7	15,9
Gizarte-harremanak	1:01	0:43	1:49	1:02	55,3	53,7
Aisi aktiboa eta kirolak	1:31	1:34	2:27	2:12	62,0	71,2
Aisi pasiboa	4:16	3:45	4:24	3:52	97,7	97,3
Joan-etorriak	0:03	0:48	0:58	0:57	51,8	84,6

(1) Batez besteko gizarte-denbora: >=60ko biztanleriak jarduera bati batez beste eskaintzen dion denbora

(2) Partaideko batez besteko denbora: 60 urte edo gehiagoko biztanleriak jarduera bati batez beste eskaintzen dion denbora (horrelakorik egiten badu)

(3) Partaidetza-tasa: jarduera egiten dutenen ehunekoa

Data 2024ko Irailaren 30a


Iturria: Eustat. Denbora Aurrekontuen Inkesta

Euskal AEko 60 urte eta gehiagoko biztanleriak, 2023an, partaidetza desberdina du jardueretan. Ikuspegi horretatik, jardueren hurrenkera honako hau da: zaintza pertsonalak (60 urte eta gehiagoko herritar guztiek hartzen dute parte, % 100), aisia pasiboa (% 97,3), etxeko lanak (% 94,5), joan-etorriak (% 84,6), aisialdi aktiboa eta kirolak (% 71,2) eta gizarte-bizitza (% 53,7), eta, azken tokietan, etxeko pertsonen zaintza (% 15,9) eta laneko eta prestakuntzako jarduerak (% 12,6).

Gizonen eta adineko emakumeen parte-hartzea desberdina da zenbait jardueratan. Zehazki, gizonek emakumeek baino partaidetza-tasa handiagoa dute aisia aktiboari eta kirolei dagokienez, % 77 eta % 66,5, hurrenez hurren, eta aldea ehuneko 10,5 puntukoa

da. Emakumeek proportzio handiagoan parte hartzen dute gizarte-bizitzan (% 56,3) gizonek baino (% 50,6), ehuneko 5,7 puntuko aldearekin; baita etxeko pertsonen zaintzan ere (% 17,3 eta % 14,1, hurrenez hurren), ehuneko 3,2 puntuko aldearekin.

Euskal AEko 60 urte eta gehiagoko biztanleriaren parte-hartze tasa, jarduera motaren eta sexuaren arabera (%). 2023



Adineko biztanleriak denbora gehien ematen duen jarduerak zainketa pertsonalak eta aisia pasiboa dira

Euskal AEko 60 urte eta gehiagoko biztanleek 13 ordu eta 14 minutu ematen dituzte zainketa pertsonalekin zerikusia duten jardueretan, egunaren erdia baino gehixeago. Jarduera horiek norberaren mantenuarekin eta zaintzarekin dute zerikusia, hala nola: jan, lo egin, garbitu, medikuari galdetu, etab.

Adin-talde horrek 3 ordu eta 55 minutu ematen ditu eguneroko zereginak betetzen. Honek barne hartzen dituenak prestakuntza (47 minutu ematen ditu horretan), eta, bereziki, ordaindu gabeko lana (3 ordu eta 8 minutu) dira. Ordaindu gabeko lanaren barruan sartzen da etxeko lana, hau da, janaria prestatzea, arropa garbitzea eta lisatzea, erosketak egitea, landareak eta animaliak zaintzea (2 ordu eta 51 minutu); eta etxeko pertsonen zaintza ere sartzen da (17 minutu).

60 urte eta gehiagoko biztanleek egunaren laurden bat eskaintzen diote denbora libreari (6 ordu eta 2 minutu): horrek aisialdia (5 ordu eta 19 minutu) eta gizarte-bizitza (43 minutu) barne hartzen ditu. Aisialdian sartzen dira: aisialdi aktiboa eta kirolak, hau da, jarduera fisikoa, kirol-jokoak, kanpoko paseoak, ordenagailua edo Internet aisialdi gisa erabiltzen duten jarduerak (ordubete eta 34 minutu); eta aisialdi pasiboa ere sartzen da,

hau da, prentsa edo liburuak irakurtzea, irratia edo musika entzutea, museoetara bisitak egitea, askotariko ikuskizunetara joatea, dantza, eskultura eta pintura praktikatzea (3 ordu eta 45 minutu).

Euskal AEko 60 urte eta gehiagoko biztanleek jarduera nagusietan erabilitako batez besteko denbora, sexuaren eta adin-taldean arabera (oo: mm, %). 2023

	>=60 urte		
	b.g.d.(1)	p.b.d.(2)	tasa(3)
Guztira			
Norbere buruarekiko ardura	13:14	13:14	100,0
Lana eta prestakuntza	0:47	6:11	12,6
Etxeko lanak	2:51	3:01	94,5
Familiakoekiko ardura	0:17	1:45	15,9
Gizarte-harremanak	0:43	1:20	53,7
Aisi aktiboa eta kirolak	1:34	2:12	71,2
Aisi pasiboa	3:45	3:52	97,3
Joan-etorriak	0:48	0:57	84,6
Gizonak			
Norbere buruarekiko ardura	13:09	13:09	100,0
Lana eta prestakuntza	0:51	6:48	12,5
Etxeko lanak	2:22	2:31	94,3
Familiakoekiko ardura	0:14	1:42	14,1
Gizarte-harremanak	0:42	1:24	50,6
Aisi aktiboa eta kirolak	1:53	2:27	77,0
Aisi pasiboa	4:00	4:05	97,8
Joan-etorriak	0:48	0:57	84,0
Emakumeak			
Norbere buruarekiko ardura	13:19	13:19	100,0
Lana eta prestakuntza	0:43	5:42	12,7
Etxeko lanak	3:15	3:26	94,6
Familiakoekiko ardura	0:19	1:47	17,3
Gizarte-harremanak	0:43	1:17	56,3
Aisi aktiboa eta kirolak	1:19	1:59	66,5
Aisi pasiboa	3:34	3:40	97,0
Joan-etorriak	0:49	0:57	85,0

(1) Batez besteko gizarte-denbora: >=60ko biztanleriak jarduera bati batez beste eskaintzen dion denbora

(2) Partaldeko batez besteko denbora: 60 urte edo gehiagoko biztanleriak jarduera bati batez beste eskaintzen dion denbora (horrelakorik egiten badu)

(3) Partaldetzatasa: jarduera egiten dutenen ehunekoa

Data 2024ko Irailaren 30a

Iturria: Eustat, Denbora Aurrekontuen Inkesta

Adinekoek gainerako biztanleek baino denbora gehiago ematen dute zaintza pertsonaletan, aisia pasiboan eta etxeko lanetan

60 urte eta gehiagoko biztanleek zaintza pertsonalei ematen dieten batez besteko denbora 13 ordu eta 14 minutukoa da; 16 eta 34 urte bitartekoek eta 35 eta 59 urte bitartekoek, berriz, denbora gutxiago eta oso antzekoa (11 ordu eta 57 minutu eta 11 ordu eta 35 minutu, hurrenez hurren).

60 urte eta gehiagoko pertsonak etxeko lanetan ematen duten batez besteko denbora (2 ordu eta 51 minutu) 16 eta 34 urte bitartekoek ematen dutenaren bikoitza baino gehiago da (ordu 1 eta 19 minutu), eta 35 eta 59 urte bitartekoek jarduera horretan ematen dutena baino zertxobait handiagoa (2 ordu eta 12 minutu).

Aisialdi pasiboan emandako batez besteko denborari dagokionez, adinekoak dira denbora gehien igarotzen dutenak horretan (3 ordu eta 45 minutu), talde gazteenaren, 16-34 urtekoen (ordubete eta 36 minutu) eta 35-59 urtekoen (2 ordu eta 2 minutu) bikoitza inguru.

Adineko pertsonen eguneroko betebeharrei eskainitako denbora 28 minutu murriztu da azken 3 hamarkadetan

Euskal AEko 60 urte eta gehiagoko biztanleek 4 ordu eta 23 minutu ematen zituzten 1993an eguneroko betebeharrak betetzen, eta 2023an 3 ordu eta 55 minutu, hau da, 28 minutu gutxiago. Ordaindutako lanean eta prestakuntzan emandako denbora 1993an ordubate izatetik 2023an 47 minutu izatera igaro da (-13 minutu).

Azkenik, ordaindu gabeko lanak 15 minutu egin du behera, etxeko pertsonen zaintzak gora egin duelako (+10 minutu) eta etxeko lanak behera egin duelako (-25 minutu).

65 urteko eta gehiagoko biztanleak ez daude biztanleria osoa bezain pozik bizitza orokorrarekin

Euskal AEko 65 urte eta gehiagoko pertsonen 7,16ko puntuazioa eman diete 2023an bizitzarekiko gogobetetzeari, zerotik hamarrerako eskalan. Puntuazioa Euskal AEko batez bestekoa baino txikiagoa da, 7,34ko puntuazioarekin.

Hala ere, 65 urte eta gehiagoko biztanleriaren gogo-aldartearen adierazleak 6,67ko nota ematen du, eta biztanle guztien batez besteko notak (6,42) baino balio handiagoa lortzen du 2023an.

Azkenik, adinekoak dira aisialdiarekiko gogobetetze-maila handiena dutenak, 7,62ko batez besteko notarekin, puntu bat baino zertxobait gehiago biztanleria osoarekiko (6,55), eta adierazle horretan gogobetetasun gutxien duten pertsonak baino 2 puntu gehiago, hau da, 35-49 urteko taldea (5,70).

Euskal AEko 16 urte eta gehiagoko biztanleak, bizitzarekiko ajetasunaren, gogo-aldartearen eta aisialdiarekiko gogobetetasunaren adierazleen arabera adinari jarraiki (batez bestekoa) (*). 2023

	Bizitza-asetasuna	Bizitzaren balioa	Aisialdiarekiko ajetasuna
	BATEZ BESTEKOA	BATEZ BESTEKOA	BATEZ BESTEKOA
GUZTIRA	7,34	6,42	6,55
Adina			
16-24	7,78	6,55	6,93
25-34	7,48	6,30	6,16
35-49	7,46	6,37	5,70
50-64	7,19	6,23	6,26
65 eta gehiago	7,16	6,67	7,62

(*)Erabilitako eskala: 0tik 10era (asetasunik ez-oso ase)

Data 2024ko Irailaren 30a

Iturria: Norberaren ongizate-inkesta

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62